

KONTROL MOZIOA,

Zabaleta kaleari buruzkoa

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2020ko otsailaren 17an Gune Publikoen Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Groseko Katalunia plazak eta Zabaleta kaleak bat egiten duten aldea oinezko-bidea da, eta berez autoek Katalunia plaza azpiko parkinera sartzeko soilik erabil dezakete. Hala ere, gidariek ez dute bide hau errespetatzen eta etengabeak dira alde batetik bestera dabiltzan autoen zeharkaldiak.

Katalunia plazako parkeko erabiltzaileek salatu dutenez, gehienbat Zabaleta kaletik Galtzada Nagusirantz doan norabidean ikus daitezke autoak, baina baita aurkako norabidean ere.

Gune Publikoen Batzordearen urtarrileko bileran oinezko-bide honetan ematen den egoeraren berri eman genuen. Bertan Udal Gobernuak autoak ez sartzeko zer neurri hartuko zituen eta zein epetan jarriko zituen galdetu genuen. Baina Udal Gobernuaren partetik ez genuen neurri zehatzen erantzunik izan, eta kontrola baino ez zuten aipatu.

Udal Gobernuaren jarrera ikusirik, otsaileko batzordean gai bera ekarri genuen interpelazio gisa. Baina beste behin ere, ez genuen erantzun zehatzik jaso Udal Gobernuaren partetik, ez zein neurri jarriko zituzten autoak oinezko bide honetatik ez igarotzeko, ez eta zein epetan jarriko zituzten jarri beharreko neurriak ere. Hiritarren gizalegearen kontrako jokabideak eta zaintza baino ez ziren aipatu.

Katalunia plaza aisialdirako gunea da, eta bertan haurrentzako parke bat dago. Beraz, hurrez eta jendez betea dagoen gunea da. Haurrak plazan ibiltzen dira jolasean eta ez da harritzekoa haurrak Zabaleta kaleraino joatea haien korrikaldietan. Baina ez hori bakarrik: aski ezaguna da osteguneroko pintxo-potean jendez betetzen dela Zabaleta kalea, eta oinezkoak lasaitasunez ibiltzen direla gora eta behera kale horretan bertan autoen zeharkaldiez arduratu gabe. Ondorioz, Katalunia plazako erabiltzaileek eta gurasoek adierazi dutenez, istripu bat gertatzearen beldur dira.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Katalunia plazak eta Zabaleta kaleak bat egiten duten bidea, oinezkoentzako eremu izanik, autoek ez lukete zeharkatu beharko. Beraz, Udal Gobernuari dagokion ardura hartzea eskatu nahi diogu eta istripuren bat gertatu aurretik, Katalunia plazako erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko bertan neurriak ezar ditzala eskatu.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari oinezkoek erabiltzen duten Zabaleta kalean autoak ez sartzeko eta soilik parkingerrako sarrera baimentzeko neurriak har ditzala.

Donostia, 2020ko otsailaren 21ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia